

## URARI BEGIRA

*Oi erealdi mee!  
zauri ezti bai ezti!*

(Gunitzeko Jon Deuna)

Emen naukazu, Jauna, ur-ertzean zutik;  
atzo ta gaur, ene Jaun, emen ni zurturik  
Etzara gogoratzen? Ozen dabilkit ura.  
Atzo eta gaur ura, Zuk guri emona,  
urrezko lili-baratz artetik doana.  
Argi ta dizdiz, eder, ur-abiadura.

Oar bage datorkit egunsentia leun,  
ta ni emen naukazu, biotz-zauzkada eun;  
ta ura ikusiz marmar-ots, Zu zaitut goretsi,  
Urak legez zu, Jauna, nai zaitut goretsi.  
Zuk apain jantxitako liliak onetsi,  
eguna urkuldu Zuri eskerrak egiten.

Ez dot odolik nai, emengo bakean,  
Zuk ixuria ezik Gurutz-adarrean;  
otza bebil ixurka arnasa zitala.  
Ura aska barnean lez, kantu-kantaz beti,  
olaxe nik gura dot zure baitan bizi,  
maitale bai Zuretzat izanik mazala.

Uraren albo zutik, Jauna, dei dagizut;  
entzun naizu onbera. Aita ez al zaitut?  
Negar dagidanean, naiz-ta poz unean,  
ar eizu, otoi, nire oiu-ots betea,  
urarena beizen leun bekizu nirea,  
nik Zuri opatua ona etortean.

Igoitz